

UGARRITZE

LUIS ELBERDIN

Toponimia hizkuntzaren zati bat da, arlo bat, adierazpide bat. Gizakiek izenak jartzen dizkiegu bai gauzei, bai pertsoneri, animaliei, mendiei, ibaiei, itsasoei, hiriei, etxeei, kaleei, etab.

Izen hauek jartzen ditugu Herri bakoitzaren hizkuntza eta kultura jarraituz. Herri bakoitzaren toponimian bere biztanlegoaren hizkuntza eta bere bizimoduak adierazten dira: bizitza, heriotza, mythologia... Hitz batez, bere kultura.

Herri batek beste bat kolonizatzen duenean, bere indarra, hizkuntza, ohiturak eta kultura inposatuz, gatazka bat sortzen da. Gatazka hau maila ezberdinetan adierazten da: militar, politiko, ekonomiko edo kultur eta hizkuntza mailan. Gatazka honetan, azkeneko mende hauetan gaztelaniaztapen prozesu bat sufritu du Euskal Herriak.

Gure mugatik barrurantz euskara galdu da hainbat herrietan, gaztelania inposatuz. Edo hobeto esanda, ez dira, ez, hizkuntzak inposatzen direnak, herriak baizik. Eta hizkuntzarekin loturik, euskal toponimia ere galdu da hainbat kasuetan. Hala galdu ziren hainbat euskal herri-izen: ORERETA, ARRASATE, SORALUZE... Baina ez herri-izenak bakarrik, leku-izenak ere bai. Euskal leku-izenak galdu, eta erdarazkoak sortu. Beti prozesu berbera.

Batez ere industri eta hirigintz ekimenak sortu diren tokietan. Aintzineko euskal leku-izenak galdu, eta erdarazkoak sortu. Toki-izenak, kale-izenak... Beti erdarazkoak. XIX. mendean, industri iraultza sortu ezkerro, industri ezarkuntzak eta hirigintz ekimenak sortzen dira han eta hemen Euskal Herrian. Espaniatik izugarrizko inmigrazioa etorri zen. Euskara benetazko arriskuan geratu zen. Eta gaztelaniaztapen prozesuarekin loturik, toki askotan gure leku-izenak galdu ziren. Sortzen zirenak, berriz erdarazkoak.

Hala desagertu ziren Oreretan euskal eta jatorrizko hainbat leku-izen: "Errazubi", "Ugarritze", "Sorgintzulo", "Bengoerrot", "Zubitxo", "Azkenportu", "Kobagañeta", etab. Eta hala sortu ziren nonnahi erdal leku-izenak: "Calle Carretera", "Avenida de Alfonso XIII", "Avenida de la Estación", "Barrio de la Estación", "Casas Nuevas", "Puente de Capuchinos", "Barrio de Capuchinos", "Avenida de la Estación de la Frontera Francesa", "Avenida de Pablo Iglesias", "Avenida de los Mártires de la Libertad", "Plaza de la Constitución", "Plaza del General Mola", etab.

Kontutan hartu behar da nola euskal leku-izenaren galera hau hirigunean gertatzen dela, eta ez nekazal inguruan. Alde batetik industri eta hirigintz ekimenak hirian suertatzen direlako. Nekazal inguruan horrelako ekimen oso gutxi egiten dira eta. Eta beste aldetik, gaztelaniaztapen prozesua gogorrago izaten da



hirian, nekazal inguruan baino. Erdaldun inmigrazioa hirigunean kokatzen da.

Baina azkeneko urte hauetan Euskal Herria berpiztu egin da, gerraurrean bezala, eta berreskuratzen ari da bai bere hizkuntza, eta bai bere nortasuna. Eta bi hauekin loturik, bere euskal toponimia berreskuratzen ari da. Testu-inguru honetan kokatzen da "Ugarritze" euskal leku-izenaren berreskurapenerako ekarpen hau.

Euskal filologiak diotenez, "Ugarritze" leku-izena "ura" eta "harria" hitzetik dator, "tze" ezagun atzizkiarekin. Dakigunez, "r" "g" bihurtzen da bi hitz hauek alkartzen direnean, Ugarte edo Ugalde kasuetan bezalaxe. Beraz "Ugarritze" k harriak, egurrak eta lohiak ibaiak dakartzen eta bere amaieran uzten dituen tokia, esan nahi du.

Zenbat kasu ezberdinetan erabiltzen den, eta zenbat aldiz aipatzen den gure Udal Artxiboko paper zaharretan ikusi ezkerro, oso garrantzitsua izan omen zen "Ugarritze" toponimoa. Berehala ikusiko dugu nola "Ugarritze" toponimoa erabiltzen den bai leku-izena bezala ("Ugarritze alderdia", "Ugarritze tokia", "Ugarritzeko lurra", "Ugarritzeko lur urbazterrak", "Ugarritzeko padura", "Ugarritzeko zelaia"), bai giza ekintzak izenpetzeko: "Ugarritzeko atea", "Ugarritzeko untzigintza", "Ugarritzeko zubia", "Ugarritzeko kaia", "Ugarritzeko untzira-leku", "Ugarritzeko lehorreratze leku", "Ugarritzeko bidea".

"Ugarritze" toponimoaren testigantzak ehundaka dira eta, labor-labor egin beharko dugu. Hasi gaitezen "Ugarritze atea" rekin. 1320. urteko apirilaren bostean, Hiri-gutunaren bidez Orereta "villa" bihurtu zenean, eginkizun bat hartu zuen: harrésiz inguratzea. Horrela egin zuten, eta Erdi Aroko Oreretan sartu edo ateratzeko bost ate zeuden. Harresiaren ipar atea "Ugarritze" koa zen. Bertatik irteten zen ibaira joateko; edo Lezo eta Donibanera joateko ere bai.

Oso gauza ezaguna da garai hartan Orereta itsas portua zela. Bost untzigintza genitun. Hauetako bat "Ugarritze" zen. Udal Aktek esaten digutenez, XVII. eta XVIII. mende bitartean, itsasuntzi ugari eraiki zituzten. Gamonek esaten digu "Ugarritze" untzigintzan 800 toneladako galdeoiak eraiki zituztela. Ugarritzeko untzigintza orain Papelera dagoen tokian zegoen.

XVI. mendean Ugarritzeko untzigintza nahiko handia zen eta azpiestruktura handiagoa behar zuen. Beraz, 1546 harrizko zubi handi, indartsu eta dotorea eraiki zuten. Eta izena jarri zioten: "Ugarritzeko zubia". Oreretako zubi handiena eta garrantzitsuena zen. 1783-an berritua izan zen, eta 1915-ean berreraikia. Ez gaizki edo hondatuta zegoelako, estua gelditu zelako baizik. "Oarso-ibai" eta "Panier-Fleuri"-aren ondoan dagoena. 1950-ean berriro berreraiki zuten. Bai 1546-tik aurrera, bai 1915-ean eta bai 1926-an oraindik, bai testuetan eta bai planoetan, "Ugarritzeko zubia" izena erabiltzen da. Bere izena ez da sekula aldatua izan. Beraz, hau da, gaurko egunean, bere izena: "Ugarritzeko zubia".

Ibaiaren eskubi aldean zeuden lurrak urbazterrak ziren. Udala zen beraien jabea. Dirudinez, oso lur aberatsak ziren, oso egokiak nekazaritzarentzat. Eta errentan jartzen zituzten. Eta dokumentu ugari idatzi zituzten. Dokumentu guztietan aipatzen dira, behin eta berriz, "Ugarritzeko urbazterrak" eta "Ugarritzeko lur urbazterrak".

Uholde asko izan ohi ziren eta ibai ondoan kaiak egin behar omen zituzten. Urak kontrolatzeko. Beraz, 1571 "Ugarritzeko kaia" eraiki zuten. 1771-ean "Ugarritzeko kaia"-ren beste zati bat osatu zuten, eta "Ugarritzeko untzira-leku" eta "Ugarritzeko lehorreratze leku" eraiki zuten. XVIII. mendean Udalak urtero egiten zuen urrian Pasaiaiko mugariaren ikustaldia. Udal Artxiboko paperetan zera diote: "alkatea eta zinegotziak elkartu ziren Udaletxean; hortik Ugarritzera joan ziren eta Ugarritzeko untzira-lekuan txalupa bat hartu zuten ikustaldia egiteko".

1858-an hasi zen trenbidearen eraiketa. Arrazoi honekin, dokumentu ugari sortu ziren. Bai Orereta eta Lezoko Udalekin, bai lurren jabeekin: "...propietarios de varios trocitos de terreno labrante, existentes en las riberas de Ugarritze, de este término municipal, comprendidos entre el terraplén del ferro-carril y el erial ó monte llamado Amaseco-chara..., debido á la construcción de la vía férrea que atravésó las citadas riberas de Ugarritze...".

Istilu asko sortu ziren geltokiarekin Orereta eta Lezo artean. Komisio bat osatu zuten bakoitzaren mugak erabakitzeko. Ez ziren ados jarri, eta beste komisio bat osatu zuten. "La Comisión nombrada por la corporación que tengo el honor de presidir, para practicar de acuerdo con V. S. la mojonadura de los límites de esa Universidad y esta villa en el punto conocido con el nombre de riberas de Ugarrice, se me ha cursado...". Lezoko Udalak: "...á fin de que se lleve á efecto el amojonamiento consabido entre ambos pueblos en el punto llamado riberas de Ugarritze, y en vista de este oficio V. S. se servirá nombrar la comision que...". Eta aurre-rago: "Las dos comisiones con sus respectivos peritos se reunieron el día 12 de Febrero de este año en las riberas llamadas de Ugarrice donde debía verificarse el deslinde...".

Eztabaida gogortu zenez gero, Foru Aldundiak parte hartu zuen. Eta dokumentu gehiago: "...esto se desprende también del hecho de ejercer siempre este último Municipio (Orereta) actos de jurisdicción en el desembarcadero de su nombre y en la ribera de Ugarritze..., hallándose acreditado en cambio que el Ayuntamiento de Lezo ha ejercido jurisdicción y ha considerado siempre como de su término municipal los terrenos situados al Norte de la ribera de Ugarritze...". Eta bai dokumentu hauei esker, ba lehen aipatutako dokumentoetan, argi eta garbi azaltzen da zer den "Ugarritze", nondik nora dijoan.



"Ugarritze" da ibaiaren eskubi aldean dauden lurrak: etxebizitzak, industriak eta trenbidea. Ugarritzeko mugak ondokoak dira: hegoaldeetik ibaia, iparraldeetik Lezorekin muga egiten duten lurrak, mendebaldeetik Itzietako zubia, eta ekialdeetik Santa Klarako zubia. Hau da Ugarritze. Argi adierazten da dokumentu guztietan.

Baina, aipatu dudana bezala, XIX. mendeko bigarren zatian bi gertaera suertatu ziren: alde batetik industri eta hirigintza ekimenak: trenbidea (1864), La Ibérica (1866), La Papelera Vasco-Belga (1889), La Papelera Española (1903); eta bestetik gaztelaniaztapen prozesua. Eta ia bapatean "Ugarritze" toponimia desagertzen da, erdal toponimo berriak azalduz: "Camino de la Estación", "Avenida de la Estación". Izenarik gabe geratzen dira, eta erreferentzia gisa, honakoak erabiltzen dituzte: "junto al camino de la Estación", "frente a la fábrica de galletas", "al otro lado del ferrocarril", etab. Eta 1907-an etxebizitzak eraiki dituztenean "Barrio de la Estación" bataiatzen dute. Hala geratzen da 1930 arte, gero "Barrio de Casas Nuevas" bihurtzeko. 1968-an La Ibérica ixten da eta 434 etxebizitzak egiten dituzte Ugarritzeko alde honetan. Fabrikako izenarekin gelditzen dira eta "Barrio de Olibet" bihurtzen da. Orain hiru aldietan zatiturik daukagu Ugarritze: "Barrio de Casas Nuevas", "Barrio de Olibet" eta Papelera.

Baina zorionez Euskal Herri osoan berreskuratzen ari dira bai euskal herri-izenak eta bai leku-izenak. Erreperatu gara zein garrantzi duten gure nortasunaren ezaugarriak: hizkuntza, herri-izenak, leku-izenak, ohiturak, bertsolaritza, folklorea etab. Hitz batez, gure kultura. Zorionez ere, milaka dokumentu daukagu Ugarritze izenaren testigantza gisa. Ikusi dugunez, Ugarritze ez dira, ez, etxebizitzak bakarrik, auzo osoa baizik. Ugarritzek zera hartzen du: trenbidea eta beste aldean dauden lurrak Lezorekin mugaraino, La Ibérica zegoen tokian egin dituzten etxebizitzak, Lekuona okindegia, jubilatuen etxea, Gernika Plaza, Panier-Fleuri eta bere ondoko etxeak, eta Papelera. Multzo honek euskal eta aintzineko izena dauka: Ugarritze.

Euskal Herrian sufritu dugun gaztelaniaztapen prozesuan, euskarari buruz egiten diren ikasketak eta ikerketek helburu bat daukate: euskararen berreskurapena. Berriz, euskal toponimiari buruz egiten diren ikerketak premiazko helburu berbera daukate: gure euskal toponimiaren berreskurapena. Beraz, denbora gehiagoko galdu gabe, nik uste dut merezi duela Oreretako euskal eta jatorrizko leku-izan hau berreskuratzea: Ugarritze*

* Hemendik gutxira espero dut Ugarritze izenari buruz txosten bat kaleratu ahal izango dudala. Orduarte.